



Jaurlaritzaren telebista lokalen dekretuan euskarazko katerik ez

TOLOSALDEA ▶ Eusko Jaurlaritzak telebista lokaletarako atera nahi duen dekretuan ez du euskara hutsezko katerik bermatzen

EUSKARA ▶ Eskualdeko euskaldun kopuruaren arabera, euskararen presentzia %71,8koa izan beharko luke, eta %50,3koa izango da, 2

Hirugarren postua lortuta, finalera sailkatzeko aukerak ditu Diego Riañok

LEITZA ▶ Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalerdian lehiatu da asteburuan Leitza; Elosegi bosgarren sailkatu da kanporaketan ▶ 7



Abesbatza guztietako kideak, kantuan elkarrekin. HITZA

ALEGIA ▶

Txintzarri alaienak Almazango Abesbatza Topaketan

Txintzarri abesbatza Galiziako eta Espainiako koralekin aritu da Sorian ▶ 5

J. ASTIBIA



IBARRA ▶

Urrezko Aizkolarien Txapelketan aurrera egin du Unai Otañok

Mindegiauren aurka lehiatuko da orain; «zutikakoan egin beharko diot aurre» ▶ 6

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Lanbide Hastapeneko Ikasturtea

OSTALARITZA ETA TURISMOA

- Jatetxe arloa.
- Sukaldaritza.
- Gozgintza eta okigintza.
- Ostatu arloa.
- Bidei agentziak.
- Turismo-informazio eta merkataritza.

INFORMATIKA

- Informatika-sistemen administrazioa.
- Informatika-aplikazioen garapena.
- Sistema informatikoen ustiapena.

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Nazioarteko merkataritza.
- Merkataritza-kudeaketa eta marketina.
- Merkataritza.

ADMINISTRAZIOA

- Administrazio eta finantzak (A eta D).
- Idazkaritza.
- Administrazio-kudeaketa.

SUKALDEKO LAGUNTZAILEA / BULEGO LAGUNTZAILEA

www.cebanc.com
943 316 900

ATEAK ZABALIK:
Bihar asteazkena, 06/3/15 eta 06/04/4 asteartea.
Orduak: 12:00tan eta 18:00tan.

Cebanc-Cdea
FORMACION PROFESIONAL • LANBIDE HEZIKETA
Berio Pasealekua, 50 • 20.018 Donostia

KOMUNIKABIDEAK ▶

Euskaran, eskualdearen atzetik

Eusko Jaurlaritzak telebista lokaletarako atera nahi duen dekretuan ez du euskarazko katerik bermatzen, eta euskararen kuota ezartzean gizarteko errealitatearen aldean %30ean doa atzetik

ERREDAKZIOA

Eusko Jaurlaritzak ez du telebista lokaletan euskarazko katerik bermatzeko asmorik. Hala abiatu zen dekretuaren zirriborroa zabaltzean —aazaroan, hain zuzen ere— eta EKTk emendakinen bidez aldatetako eskatu dizkion arren, ez dirudi euskarari dagozkion alegazio gehienak aintzat hartuko dituenik. Asteotan aterako du tokiko telebista digitalen esleipenak arautzeko dekretua.

Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) 15 demarkaziotan banatu du —Tolosaldea da haietako bat— eta bakoitzean printzipioz egongo diren lau lizentzietatik bat, udalentsat gordeko du; udal horrek gutxienez %50ean egin beharko du euskaraz. Oso udal gutxi adierazi dute orain arte telebista lokal publikoak sortu nahia.

Gainerako lizentziak, enpresa pribatuen artean banatuko ditu, eta hor gauzak okertu egingen dira euskararentzat.

LAU ARAZO DEKRETUAN

Eusko Jaurlaritzak zabaldu zuen dekretu zirriborroan lau arazo hauek nabarmen daitezke euskarari dagokionean:

Ez da euskara hutsezko katerik bermatzen. Dekretuak ez du ziurtatzen euskara hutsezko kateak egongo direnik eskualde bakoitzean. Jaurlaritzak esaten du euskarazkoek lehentasuna izango dutela; baina euskara hutsezkoentzat lekuri ziurtatzen ez duenez, epaimahaiak erabaki lezake, beste argudioren bat dela medio, euskara hutsezkoa ez den kate bati ematea esleipena.

Herritar ia-euskaldunak ez ditu aintzat hartzen. Jaurlaritzak demarkazio bakoitzeko euskaldunen ehuneko hartzen du kontuan, eta horren baitako euskararen erabilera ezartzen die telebistei. Ia-euskaldunak ez ditu hartzen kontuan, eta EKTk dioenez, «uler-tezinada da hori, haiek ikusle potentzialak direlako». Horren bestelako aurrekari bat badu Jaurlaritzak berak: administrazioa euskalduntzeko dekretuetan ia-euskaldunak aintzat hartzen dira. Telebisten kontuan ez du irizpide bera erabili. **Euskaldunen indizearen %70 hasieran.** Eusko Jaurlaritzaren zirriborroak dio tokiko telebis-

TOLOSALDEA ▶

Biztanleak ¹	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Euskaldunak + ia euskaldunak	Euskararen presentzia telebista emititzen hastean ²	Hizkuntz egoera eskualdeko telebista pribatuetan
43.093	30.953 %71,8	6.794 %15,8	37.747 %87,6	%50,3	Nagusiki euskaraz (EAE n euskaraz 3 soilik)

¹: 'Biztanleak' dio, baina 'Hizkuntz' esan nahi du; hau da, 2 urtetik gorako biztanleak. ²: Alegia, 'Euskaldunak' zutabearen agertzen den ehunekoaren %70.

tetan euskararen presentzia, hasieran, eskualdeko euskaldunen indizearen %70ekoa izatea bermatu beharko dela. 10 urteko epea ematen du dekretu zirriborroak indize hori betetzeko. Tolosaldean, bertako euskaldunen arabera euskararen presentzia hasieratik %71,8koa izan beharrean, %50,3koa izango da. «Ez da ulertzen, zerbitzu publiko baten esleipenean, enpresa pribatu batzuei nolatan onartu behar zaien gizartearen atzetik joatea; %30 atzetik, edo 10 urte atzetik, bietara esan daiteke. Izatekotan kontrakoa beharko luke, gizartearen aurretik joateko araua jarri behar litzateke», dio EKTk.

Ez da bermatzen euskarazko programazioa 'prime-time'-n agertzea. Jakina denez, telebista generalisten *prime-time*

20:00 edo 21:00etatik 23:00 edo 24:00etara doanari esaten zaio. Jaurlaritzako arduradunek diote telebista lokalei dagokiena 07:00etatik 24:00ak artekoa dela. «Hartara, telebista elebidun edo ia osorik erdalduna izango den batek erabaki lezake euskarazko programazioa ordutegirik txarrenean ematea eta benetako *prime-time*-n erdarazkoa».

EAE-N

Euskal Autonomi Erkidegoan egongo diren 60 toki telebisten artean printzipioz 45 telebista, enpresa pribatuei esleituko dizkie Jaurlaritzak (beste 15ak udalei). 45 horietatik, bederatzia telebista izango dira nagusiki euskaraz, eta 36 telebista nagusiki erdaraz izan daitezke. Hortaz:

Euskarazkorik ez bermatuta.

Euskara hutsezko telebistarako ez dago legez bermatuta.

%20 nagusiki euskaraz. Telebista guztien artean soilik %20 izango dira nagusiki euskaraz.

Euskara erdarazkoetan. Telebisten %80 nagusiki erdaraz izango dira eta, gainera:

▶ Kasu batzuetan euskararen presentzia oso txikia izango da (%15, %11, %8).

▶ Ez da bermatzen euskarazko programazio apur hori *prime-time*-n izango denik.

Zona erdaldunetako kasua. Euskaldunen eta ia-euskaldunen kopururik handiena zonalde erdaldunetan bizi da, eta euskaldunen gehiengoak ez du izango legez bermatuta euskara hutsezko katerik, ezta nagusiki euskarazkoak izango direnak ere. Horrela, euskaldunen %78ak eta ia-euskaldunen

%95ak nagusiki erdarazkoak izango diren toki telebistak soilik ikusi ahal izango dituzte.

ESKAERAK

EKTk honako eskariak egin dizkio Eusko Jaurlaritzari:

Euskarazko kate kopurua. «Euskaldunen eta ia-euskaldunen ehunekoaren baturaren proportzioan bermatzea euskara hutsezko kate kopurua demarkazio bakoitzean, eta gainerakoei kuota ezartzea». **Ia-euskaldunak.** «Ia-euskaldunak ere kontuan hartzea euskararen erabilera kuota ezartzean».

Euskararen kuota. «Ezartzen den euskararen kuota hasieratik betetzea erdarazko kateek». **'Prime-time'.** «*Prime-time*, telebista orokorrekin duten bera izatea; hor ere legezko proportzioan izatea euskaraz lekua».



Eusko Jaurlaritzak erabaki duenaren arabera, Tolosaldea izango da telebista lokaletako 15 eremuetatik bat.

SASKIBALOA ▶

Asko sufrituta, garaipena Aralarreko seniorrentzat

Jarrillerosen aurka 67-61 amaitu zuten; harrobian, bi porrot eta garaipen bakarra

ERREDAKZIOA

Aralarrek garaipen garrantzitsua erdietsi zuen larunbatean, maila mantentzeari begira. Jarrilleros Bizkaiko taldearen aurka 67-61 irabazi ostean. Azken laurdenera lau puntuko aldearekin galtzen heldu ostean, asko sufritu behar izan zuten tolosarrek puntuak bereganatzeko.

Beheko taldeei begira, kadeteek Federazio Txapelketari dagokion partida galdu egin zuten. Eta infantiletan, berriz, lehen taldeak aise irabazi zuen partida; baina bigarrenak galdu egin zuten, beste behin ere.

TELEFONOAK ▶
**Larrialdiak. ((112))
Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**
- Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ **DYA:** 672536
 - ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarlan autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ARETO FUTBOLA ▶


Laskoraingo jokalariek etxean jokatutako norgehiagoka bateko atsedendali batean. HITZA

Eskoriatzaren aurka, bolada txarrari agur esan dio Laskorainek

5 eta 4ko emaitzarekin «ezinbestekoa» zen garaipena ekarri dute etxera, Saldiasen «azken uneko» gol bati esker

ERREDAKZIOA

Laskorain areto futbol taldeko mutilek hiru puntuak etxera ekartzea lortu zuten, pasa den larunbatean, Eskoriatzaren aurka jokatutako norgehiagokan. Hala, azken asteetako bolada txarrari bukaera eman ahal izan diote. «Emaitza positiboaren premia ezinbestekoa zen bai sailkapenean aurrera egiteko, bai eta taldearen animoak suspertzeko ere».

Norgehiagoka gaizki hasi zen horitxoentzat, «zorte txarreko jokaldi batean» etxeokoen lehenengo gola sartu baitzuten; bigarrena ere jarraian igo zen markagailura. 2-0koarekin, Egizabalen mutilek jokoaren pisua hartu zuten eta aurkariei atezainak zenbait aukera garbi ezereztatu ostean Telletxeak aldea murriztu zuen. Eskoriatzakoek segidan erantzun zuten jaurtiketa bikain baten bidez. Aldageletarako bidean,

beraz, 3 eta 1ekoarekin zen partida, eta laskoraindarrak «kopetillum».

Bigarren zatia hasi bezain pronto Murgik gola egin zuen markagailuan beste behingoz hurbilduz, baina norgehiagoka berdintzeko hainbat aukera garbi izanagatik beste «gol mingarri bat» jaso zuten tolosarrek. 4 eta 2koarekin eta 8 minutu falta zirenean, partidua galdurik zirudienean, Eskoriatzaren laskoraindarrak (kanerako eta borrokarako grina piztu ziren). Horitxo defentsak eta presio sendoak bultzaturiko kontraerasoek aurkaria zenbait falta argi egitera behartu zuten, eta Telletxeak norgehiagoka berdindu zuen 10 metroatik sareraturako 2 golei esker. Baina berdinketak ona zirudienean eta partidua bukatzeko 13 segundo baino gertatzen ez zirenean, Saldiasen «jokaldi ikusgarria» etorri zen, non garaipena heldu baitzen.

Lan bikaina, beraz, horitxoek Eskoriatzaren burututakoa. Javi delegatuaren eta Egizabal entrenatzailearen esanetara, Domente, Telletxe, Yustos, Saldias, Gil, Murgi, Kalixto, Ekhi, Amatriain eta Arregi jokalariek aritu ziren larunbatean. Datorren astean etxean izango dute hitzordua.

Gazteek, emaitza gazi-zozoak

Harrobikoek ere, astero legez, euren neurketak izan dituzte asteburuan, eta pozarako eta tristurarako emaitzak izan dira. Horrela, Alonsoren taldeak 4 eta 2 galdu zuen mailako lideraren aurka etxean jokatutakoan; Muruaren mutilek, aldiz, 3 eta 2 irten ziren garaile.

iragarki laburrak ▶

LANA
Tabernaria. Anoetan, neska euskalduna behar da taberna 4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. Deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

Saltzailea. Belar denda batean lan egiteko saltzailea behar da. Interesatuak deitu 665 70 64 04 telefono zenbakira.

SALGAI
Furgoneta. Citroen Berlingo. 2003koa. 30.000 kilometro. Oso egoera onean. Deitu 635 73 63 75 telefono zenbakira.

Kopistegia. Alokairuan edo salgai, Ibarren kopistegia-inprimaketa digitala. Laguntza izango duzu. Interesatuak deitu 615 73 61 85 telefono zenbakira.

SEGUROS BILBAO

Zumardi

aholkularitza integrala

Laskurain, 8 behea • **TOLOSA**
 Tel.: 943 65 18 78 • Tel./Faxa: 943 65 18 77

OSASUNA ▶

Odol-ematea bihar Inmakulada ikastetxean

Bihar, asteazkena, odola emateko aukera izango dute herritar guztiak Tolosako Inmakulada ikastetxean, 10:00etatik 12:00etara. Ikastetxeok tolosar guztion laguntza eskatu dute.

HEZKUNTZA ▶

Bihar guraso bilera izango da Orixen

Bihar, DBHko 3. mailako eta Batxilergoko 1. mailako gurasoen bilera izango da Orixen. 18:30ean hasiko da eta, bertan, afektibo eta sexu-heziketa programaren aurkezpena egingo dute.

GIZARTEA ▶

Haur Liburutegiko maileguak bueltatzeko deia

Liburutegiak Kultur Etxea egoitza zuela maileguz emandako liburu, bideo eta DVDak Errotara bueltatzeko deia luzatu dute Haur Liburutegikoek. Itzulera errazteko eraikuntzaren kanpoaldean edozein ordutan erabilgarri dagoen postontzi bat dagoela jakinarazi dute.

NATURA ▶

Zumardi-Amalur jardunaldiak, bihartik aurrera

Bihar Zumardi-Amalur jardunaldien lehen hitzaldia izango da, 20:00etan, Kultur Etxean. Angel Ortizek eta Josu Iztuetak *Miloi bat kilometro lur azaletik* hitzaldia eskainiko dute. Ekialdeko Afrikari buruz. Joxemi Saizarrek gidatuko du hitzaldia, euskaraz jorratuko dena.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

Jon Sudupe eta marxismoa

Joan den urtarilaren 17an *Berria*-n argitaratutako Jon Sudupe saikera egilearen *Gaurko mundua ulertzeko* artikuluari erreparatuta, bertako bizpahiru baieztapenen inguruan gure desadostasuna azaldu gabe ezin gelditu.

Alain Tourainerentzat «paradigma sozialak» berea eman du. Akabo eredu soziala. Oraingo arazoak ez dira «sozialak». Ez da lehen aldia klase sozialen amaiera aipatzen dela, kritiko burgesek orriak eta orriak bete dituzte gaiari buruz. Izan ere, badirudi Bigarren Mundu Gerratik aurrera langile klasearen bizi-baldintzen hobetzeak (eta ez dugu ahaztu behar bere borrokaren eskutik etorri dela) klase harteko desberdintasunak lausotzeko balio izan duela. Baina klaseak ez dira garai historiko batean duten ongiza-

tearen arabera antolatzen. Klaseak jabetza pribatuarekiko duten erlazioaren arabera antolatzen dira.

Hau azaltzeko klaseen sorrera joan behar dugu ezinbestean. Klase banaketarik ezagutzen ez zuten aurrehistoria hartan jabetza komunala zen, ekoizpen indarrak komunak ziren, eta, ondorioz, ez zen klase zapalketarik existitzen. Engelsek bikain azaldu zuten gizartearen banaketa hau *Familiaren, jabetza pribatuaren eta estatuari jatorria* lanean: «Abeltzantza, nekazaritza eta eskularen garapenarekin gizakiaren lan indarra bere iraupenerako behar zuena baino produktu gehiago ekoizteko gai izaten hasi zen. Tribuko kide bakoitzak egin beharreko lan kopurua ere handitu egin zen (...) Beharrezkoa zen lan indar gehiago lortzea, eta (tribuko gerrak eman zuten: presoak esklabu bilakatu ziren). Une honetatik aurrera gizatal-

dearen zati bat bilakatzen da lan indarren (makineria, herramintak) jabe eta beste klase soziala beharturik dago lan egitera bizirik atera nahi badu. Jabetza pribatua da klase banaketaren isla, eta hau dagoen bitartean (besterentzako lan egitera beharturik dagoen jendea dagoen bitartean) klase sozialak ez dira desagertu, beraz, hasteko, hementxe lehen desadostasuna.

Jon Suduperen uztez, «tradiczio sozioekonomiko marxista ikuspegi kulturalista horren kontra egon da beti». Honelako baieztapenak ez dira berriak. Marxismoak dena ekonomiara murrizten duela Marx eta Engelsen garaian ere askotan aipatu zuten burgesiaren agenteek, eta hauek behin eta berriro erantzun zioten terribertsazio horri. Engelsek Blochi bidalitako gutun ezagun honetan ikus daitekeen bezala: «Historiaren kontzeptio materialistaren arabera, historiaren

elementu determinatzailea azken batean bizitza errealeko produkzio eta erreproduktzioa dira. Ez Marxek eta ez nik ez dugu hau baino gehiago baieztatu; beraz, norbaitek elementu ekonomikoa determinatzaile bakarra dela esateraino eraldatuz terribertsatu baldin badu, zentzurik gabeko esaldi abstraktu eta absurdu bateraino eraldatu du. Egoera ekonomikoa oinarria da, baina superregituraren zati ezberdinek, klase borrokaren forma politikoek eta hauen ondorioek, klase garaileak gudua irabazi ostean ezarritako konstituzioek, eta abar, forma juridikoek, eta, ondorioz, baita borroka errealeko guzti hauek borrokari eragintan utzitako isladek: teorikoek, politikoek, juridikoek, ideia erlijiosoen eta dogma sistema bilakatzeko ondorengo garaipenak, borroka historikoen gan badute eragina eta kasu askotan beraiek dira formaren determinatzaileak.

Eta marxismoak kulturari garrantziarik eman ez izana Marxen ideien erabateko inkomprentzioa da. Irakurri besterik ez dago Marxek Irlandako arazoari edota Leninek autodeterminazio eskubideari eta arazo nazionalari eskainitako orri kantitateak. Gizakiaren askatasuna bere oinarritzko beharrak asetzetik hasten zela ondo bazekiten ere, ongi zekiten gizakiak benetan askea izateko eskubide kulturalak bermaturik izan behar zituela: bai hizkuntzarenak, hezkuntzarenak... Askotan egin izan zaio marxismoari antikuluralistaren kritika. Burgesiaren demagogia hutsa da. «*Divide et impera*», zioen Cesarrek. Izan ere, Marxek ondo zekien langileak nazioen gainetik elkartzeko modu bakarra eskubide sozialen aldeko borroka eskubide kulturalarekin uztartzea zela.

IBON ARTOLA ETA MANU
ORDIZOLA ▶ ANOETA

DUATLOIA ▶

Eskualdekoen emaitza bikainak Basaurin

IMANOL GARCIA

Eskualdeko kirolariak bikain aritu ziren Basauriko X. Duatloian, igandean. Emakumezkoetan Amaia Luquin —Villabonako kiroldegiko gerentea— eta Itsaso Leunda hernialdearra izan ziren lehengo eta bigarren, hurrenez hurren. Gizonezkoen artean, Patxi Urizar billabonaterra bigarren izan zen; bere anaia Luis Maria seigarren, eta

Egoitz Zalakain tolosarrak 14. postuan amaitu zuen.

Amaia Luquin aste honetan abiatuko da Argentinara, bertan mendiko duatloian Grein Cup Munduko Txapelketan lehiatuko baita. «Ongi pasatzera eta ikastera noa», azaldu dio Hrtzari Luquinek. Bere aldetik, Patxi Urizar igande honetan Santiagon (Galizia) ariko da lehian EAEko selekzioarekin, Espainiako Autonomi Arteko Txapelketan.

ANOETA ▶ PILOTA

Paleta goman Kuku elkartekoak txapeldun

Mendizabalek eta Arozenak nagusitasunez irabazi zuten

ERREDAKZIOA

Anoetako Kuku elkarteko bikoteak irabazi du Ezker Hormako Euskadiko Txapelketako finala paleta goman, nagusien mailan. Maider Mendizabal anoetarra eta Nagore Arozena lizar-tzarra erraz gailendu zitzaizen Iruñeko Oberena elkartearen bikoteari, 30 eta 8ko emaitza lortuz.

Kuku elkarteko bikoteak menderatu zuen partida. Izan ere, Oberena elkarteko bikote titularrak falta zen, Kuban txapelketa bat jokatzeko ari baitzi-



Behean, txapelarekin, Maider Mendizabal eta Nagore Arozena. HITZA

ren. «Beraiek etorri izan balira, partida oso gogorra eta borrokatua izango zen», azaldu zuen Nagore Arozenak.

Anoetako frontoian jubenil mailako finala ere jokatu zen eta bertan Hernani 1ek Hernani 4ri 30 eta 6 irabazi zion.

FORMAKUNTZA IKASTAROAK (Langileentzat)
KUALIFIKAZIO PROFESIOALEN SISTEMA – KATALOGO MODULARRA

IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
BEROKUNTZA instalazioak muntatzea	40	2006-03-15	18 - 21
NEUMATIKA-ELEKTRONEUMATIKA	40	2006-03-15	18 - 21
KALITATEA-ren kudeaketa	20	2006-03-20	18 - 21
CNC tornuko makinaren prestaketa eta programazioa	40	2006-03-20	18 - 21
AIRE GIROTU-ko instalazioak muntatzea	40	2006-03-26	18 - 21
Automatismo elektroteknikoak (KOADRO ELEKTRIKOAK)	40	2006-03-26	18 - 21
CAM (Abia handiko Mekanizazioa – Unigraphics)	20	2006-03-26	18 - 21

Matrikula eta informazioa: Telefonoa 943 65 11 47 - Santa Luzia, 17 - 20400 TOLOSA
idazkaritza@tolosaldea.com • www.tolosaldea.com

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

ALEGIA ▶ MUSIKA

Almazango topaketan, Txintxarri alaiena

Galiziako eta Espainiako koralekin batera aritu dira kantuan



Txintxarri abesbatzak Almazango Pedro deuna elizan 300 lagun bildu zituen. HITZA

ERREDAKZIOA

Iragan den asteburuan Soriako Almazan herrira (Espainia) egin zuten Txintxarriko abesbatzakoez bidaia; herri hartako 6. Abesbatza Topaketan hartu zuten parte. Galiziako koru batekin batera aritu ziren alegitarrak, Soriako beste birez gain.

«Kultur-trukea egitea» izan da topaketa horren helburua, Nerea Pikabea Txintxarri abesbatzako kideetako batek zioen moduan.

Galiziako Orfeon do Carballiño izan zen larunbatean lehena abesten. «Jose Luis Rezaren zuzendaritzapean, Galiziako doinuak eta habanerak eskaini zituzten, eta txalo zaparradak

jaso zituzten entzuleen alde-tik».

Txintxarri abesbatzakoen txanda heldu zen gero; oso bestelako estiloko kantuek eskaini zituzten: Garbiñe Orbegozok zuzenduta, kantu alai eta dinamikoak. «*Axuri Beltzak* animo oihuren bat edo beste sorrarazi zuten entzuleen artean; *Maita* eta *Aurtxo* *seaskan* kantuek izan ziren abestirik samurrenak. Serratek Machadoren poema ezagunari ezarritako doinua izan zen Almazango entzuleen bihotza hunkitu zuena; euskal abesbatzen goi mailako kalitate nabarmen geratu zen».

Gauean hiru abesbatzek opariak eman zizkieten elkarri; Almazango alkateak esker

oneko hitzak egin zituen Udalaren izenean hiru abesbatzen-tzat, eta herriaren oroigarriak banatu zituen. Txintxarri abesbatzakoez txapela jantzi zieten Carballiñoko eta Almazango abesbatzetako zuzendari, eta zintzarri bana ere oparitu zieten Alegiaren oroigarri gisa, ikusle goaren barren artean.

Hiru abesbatzak elkarrekin

Azkenik, abesbatzek elkarrekin hiru hizkuntzetan abestu zuten, hiru lurraldeetako kanta ezagunak abestuz. «Almazango Coral Polifonicaren laguntza esker onekoa eta ezinbestekoa izan da Txintxarri abesbatzak Soriara egin duen bidaia honetan».

ALTZO ▶

Gurasoei eta nerabeei buruzko hitzaldia bihar

Altzoko udalak hitzaldia antolatu du bihar, *Heziketa ereduak familian* izenburupean. Izadi gizarte gaiak ikertzeko gabinetearen eskutik, nerabe eta gurasoen arteko harremanen eta jokabideen agaiaren inguruan jardungo dute. Altzoko Ertotzeko lokalean bilduko dira biharkoan, arratsaldeko bostetatik aurrera, gai interesgarri honen gaineko informazioa eskuratzeko. Hizlariak entzuleen argitasunak zehazteko prest egongo direla azpimarratu dute antolatzaileek.

ALEGIA ▶

I. Bertso Paper Lehiaketa antolatu dute

Alegiako I. Bertso Paper Lehiaketa jarri dute martxan. Antolatzailea Zazpi astoren gainean bertsozaleen taldea bada ere, laguntzaileak izan ditu: Udala, San Juan eskola eta Aralar institutua. Partehartzaileak 2 taldetan banatu dituzte. A taldean 16 urte baino gutxiagoak, eta B taldean 16 urte edo gehiago dituztenak. Hilaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira lanak. Bi gutun entregatu beharko dira Kultur Etxean. Batean aurkeztekoa eta bestean egilearen datuak.

ALEGIA ▶



Emakume hauek urteak daramatzate martxoaren 8an biltzen. HITZA

Emakumearen Eguna ospatuz

Beste urte batez bildu ziren Alegiako emakumeak, hilaren 8an, 1909. urtean New Yorken (AEB) emakume langile batzuk lan egoera latzarenatik egindako grebaren gainean gertatutakoa gogora ekarri: bazkari ederra egin eta solasean aritu ziren herriko emakume koadrila batzuk, Jubilatuen tabernan, besteak beste. Alegian bezala, beste hainbat herrietan bereziki ospatu zuten egun hau emakumeek.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ennio@inmoennio.com
www.inmoennio.com

Tolosa. Erdialdean eraikuntza berriko etxebizitzak. 3 eta 4 logelekin, terrazak. Sukalde ekipatuak. Garajeekin.

Tolosaldea. Martxan dagoen taberna-jatebidea alokairuan. Informazio pertsonala.

Alegia. 2 logela eta 2 bainugela. Trasteleku. 40 m²-ko terraza. Estreintzeko, gutziz berritua izan ondoren.

Amezketak. Etxe abixkia salgai.
Belauntza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.

Asteasu. 250 m²-ko etxe bifamiliarra, eraikuntza berrikoa!

Bidanía. Eraikuntza nahiko berriko etxe bifamiliarra salgai, oso egoera onean.

Hernalde. Etxe bifamiliarrak ederra salmentan. Eraikuntza nahiko berria.
Ibarra. Etxe adosatua salmentan. Oso egoera onean.

Ibarra. Garaje itxi eta irekiak salgai.
Ibarra. Etxebizitza eta lokala, dena bat. Profesionalentzat egokia. Estreintzeko gutziz berritua izan ondoren.

Ibarra. 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 210.355 euro.

Ibarra. Euskalerrria kalea. Oso egoera onean. Hiru logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Berokuntzarekin.

Irura. Oso berezia. Eraikuntza nahiko berria. 80 m². Bi logela, egongela-

sukaldia biximiniarekin, bainugela. Trastelekuarekin.

Gabiria. Paraje ederrean, eraikuntza berriko etxe bifamiliarra.

Legorreta. Eraikuntza nahiko berria. 2 logela eta 2 bainugela. Berokuntza eta trastelekuarekin.

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai. 168.285 eurotik aurrera.

Tolosa. Belate. 3 logela, sukaldia-egongela, bainugela. 264.450 euro.

Tolosa. Foruen etorbidean gutziz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!

Tolosa. Zezen-plazan. 87 m²ko etxebizitza berritzeko igogailuarekin.

Tolosa. Berazubi. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela. Gutziz

kanpoaldera.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120 m²ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 40 m²ko bulegoa alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Tolosa. Usabal. 2.000 m²-ko pabilioi industrialak alokairuan.

Tolosa. Guadalupe. Pabilioia, 228 m² beheko aldean eta 148 m² goialdean. Prezio interesgarria!

Zizurkil. Eraikuntza berriko 640 m²-ko pabilioia. 9 metroko altuera. Kamioientzako bi sarrera, bulegoak, komunak, aparkalekuarekin...

ANOETA ▶

Oreka emozionala helburu duen ikastaroa

Anoetako eta Irurako udalake oreka emozionalari buruzko ikastaroa antolatu dute. Eguneroko arazoak konpontzeko artea izenburupean. Estres emozionala eta bere eragina osasunean; emozioen garrantzia eta beharra, emozioak nola maneiatu: beldurra, amorrua, ezintasuna, perfekzionismoa...; gure bizitza desdramatizatze bideak... Gai horiek guztiak landuko dituzte, eta alde praktikoa ere izango du ikastaroak. Izena emateko, bi udaletxeetan, hileren 17a arte.

IBARRA ▶

Matrikulazio epea irekita Uzturpeko Haur Eskolan

Ibarrako Uzturpe Ikastolak 0 eta 2 urte arteko haurrentzako Haur Eskolan matrikulatze epea irekita dauka. Interesa duenak hileren 31 arte du aukera izena emateko.

LEABURU ▶

Larresoroko herritarrekin sagardotegia

Leaburu-Txaramako Udalak, urtero bezala, bazkaria antolatu du Larresoroko herritarrekin. Hileren 26an izango da Asteasuko Sarasola sagardotegian. Izena emateko azken eguna hileren 21a izango da. Horretarako, udal bulegoetako telefono zenbakira deitu behar da: 943 67 59 31. Egun horretan ekitaldiak Txaramako plazan hasiko dira, hamaiketako hartuz trikitilarekin. 12:30ean, Kultur eta Osasun gunea bisitatu dute eta ondoren bazkarian elkartuko dira bi herrietako biztanleak.

AIZKORA ▶

Urrezko Aizkolarien Txapelketan aurrera egin du Unai Otañok

Patxi Mindegiaen aurka izango du hurrengo kanporaketa ibartarrak, eta hilabete barru Olasagastiren aurkako apustua

IÑIGO TERRADILLOS

Larunbatean jokatu zuten Urrezko Aizkolarien Txapelketako beste kanporaketa bat Ataun San Gregorion, eta Unai Otaño ibartarrak lehiaketan aurrera egin ahal izateko txartela lortu zuen Mugertza II.aren aurka nagusitu ostean.

45 ontzakoa zutik jarrita ebakitzea izan zen lehendabiziko egitekoa, eta proba honetan Mugertza izan zen Otaño baino azkarragoa, minutu bat eta 19 segundo behar izan baitzituen, ibartarrak baino 18 segundo gutxiago. Bigarrenean, 45 ontzakoa etzanda moztu behar zuten aizkolariek, eta 58 segundorekin Otaño izan zen azkarrena. Azken proban ere ibartarra gailendu zen. Kasu honetan, kana-erdikoarekin eta 60 ontzakoarekin amaitzeko 4 minutu eta 50 segundo behar izan zituen; mutrikuarrak, berriz, 6 minutu eta 13 segundotan amaitu zuen egitekoa. Orotara, 7 minutu eta 25 segundo izan zen Otañoaren denbora, eta 8 minutu eta 47 segundo Mugertzarena.

Larunbateko saioan beste hiru kanporaketa ere jokatu ziren Ataunen. Batetik, Patxi Mindegia Amillanoren aurka egin zuen, eta erraz garaitu zuen 6 minutu eta 35 segundoko denborarekin; Zubietakoak 8 minutu eta 20 segundo behar izan zituen. Bestalde, Lasak Lopezen aurka izan zuen lehia eta 7 minutu eta 40 segundoko denborarekin gailendu zen. Erdozia eta Kafiamaresen artekoa, berriz, lehenak irabazi zuen 7 minutu eta 23 segundo-



Unai Otaño, izako Urrezko Aizkolarien Txapelketan. IMANOL GARCIA

rekin. Otaño, Mindegia, Lasa eta Erdozia izan dira, beraz, txapelketan aurrera egingo dutenak, eta datorren igandean elkarren aurka kanporaketa jokatuko dutenak.

«Mindegia aurkari zaila da»

Larunbateko kanporaketan Patxi Mindegia izan zen ikusmin handiena sortu zuena; izan ere, 6 urte aizkoratik at egon ostean Ataungo saioa izan zen bere estreinakoa, eta hainbatetan txapeldu izandako Mikel Mindegiaen semeak ez zuen hutsik egin. Maila ona erakutsi zuen, eta bera izan zen kanporaketako aizkolaria onena.

Hain zuzen ere, Zubietakoaren aurka jokatu du dato-

ren igandean Unai Otaño ibartarrak, eta larunbateko saioa ikusita zaila Mindegia garaitzea izango dela adierazi du: «Ikuskizun handia eskaini zuen, batez ere zutikako proban, eta hor egin beharko diot aurre». «Gainera, hurrengo kanporaketan proba gehiago izango ditugu, eta hori nire onerako izango dela uste dut, Mindegia proba laburretan oso azkarra baita, baina luzeagotan parekatuago ibiliko garelako uste dut», dio ibartarrak.

Urrezko Aizkolarien Txapelketaz gain, Unai Otaño gogorari da entrenatzen Jesus Mari Lasarekin batera datorren apirilaren 9an Tolosako zezen-plazan Olasagastiren aurka izango duten apusturako.

IBARRA ▶

Erraz garaitu du Carnicerias Saenz Ibarra areto taldeak

5-10eko emaitzarekin amaitu zen partida; norgehiagoka osoan Ibarra izan zen nagusi

ERRERAKAZIOA

Carnicerias Saenz taldearen aurka izan zuen norgehiagoka asteburuan Ibarra areto futbol taldeak, eta erraz irabazi zuen 5-10eko emaitzarekin. Jose Manuel Tobias Ibarra-koen prentsa arduradunak azaldu bezala, «alde handiagoa izan zitekeen, baina aurkariaren atezainaren lan ona medio 5 goleko aldearekin amaitu zen partida».

Partidaren hasieratik amaierara arte Ibarra izan zen nagusi. Ibarra-koak erasoan aritu ziren behin eta berriro, Gasteizko taldea euren atea defendatu nahian aritu zen bitartean. Hala ere, lehenengo gola Carnicerias Saenz-ek egin zuen. Berdinketa 14. minutuan iritsi zen, baina seguitan jarri zen berriz ere aurretik etxeko taldea. Atsedendaldira iristear zeudela, ordea, Ibarra 2 gol egin ahal izan zituen.

Bigarren zatia hasi eta seguitan sartu zuen Ibarra-koak laugarrena, eta handik 2 minututara sartu zuen hurrengo. 32. minutuan etxeko taldeak sartu zuen, eta hurrengo jokaldian Ibarra-koak 3-6koa zen. Gasteiztarrak gogor presionatzen hasi ziren berriz ere, eta ondorioz 4-6koa egin ahal izan zuten. Ibarra-koek penalti bikoitz baten ondorioz sarturiko gola etorri zen ondoren. David Pradosek eta Lander Camiok 4-10 jarri zuten markagailua euren golekin, eta partida amaitzear zela 5-10ekoa egin ahal izan Carnicerias Saenz etxeko taldeak.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Aduna. Bifamiliarra salgai. 150 m2 eta 60 m2-ko garajea. Kalitatezko berrikuntza. Luxuzkoa.

Etxesagasti. 943 69 68 56.

Amezketak. Atxikituriko etxea salgai.

Eraiki berria. Informa zaitez!

Etxesagasti. 943 69 68 56.

Andoain. Eraiki berria den etxebizitza ederra salgai. 3 logela. Garaje ibxia.

Oso polita.

Andoain. Erabat berritutako

etxebizitza salgai, 3 logelarekin.

Estreinatzeko. Lorategiarekin.

38.800.000 pezeta.

Etxesagasti. 943 69 68 56.

Segura, Legorreta, Berrobi eta Albiztur. Egoera oneko baserriak,

lursailarekin. Etxesagasti.

943 69 68 56.

Tolosa. 3 logelako etxebizitza alokairuan. Bankuko bermea.

Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 90 m2-ko etxebizitza

salgai. Egongela, sukaldea, 3 logela

eta bainugela. Berritua.

42.700.000 pezeta.

Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Egongela, sukaldea,

2 logela eta bainugela dituen

etxebizitza. Bizitzera sartzeko

moduan. Trastelekuarekin.

42.500.000 pezeta. Etxesagasti.

943 69 68 56.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inketa. Zer iruditzen zaizu Tolosako Udalaren kultur ekitaldien eta jardueren eskaintza? Zerbaitetan hobetu behar al du? Sartu eskualdeko egunkariaren web orrian eta eman zure iritzia proposatzen dizugun gaiaren inguruan. ▶

LEITZA ▶ NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA



Ohi den moduan, bertsolariek agur bana kantatu zuten puntuaketa jaso aurretik. Irudian, Diego Riaño leitzarra ari da horretan. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Diego Riaño leitzarrak bertso saio ona egin zuen bere herrian, Leitzan jokaturako Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalurrekoan, eta hirugarren lekua lortu zuen. Larunbatekoan, gainera, finalerako zuzeneko pasea lortu zuen Jose Juan Zubieta *Etxabe*-k, saioko punturik gehiena berak eskuratu ondoren, 405 puntu. Bera Leitzako saiotik bezala, Estitxu Arozena *Etxarri-Aranatzen* sailkatu zen, eta oraingoz biak dira finaleko izen ezagunak. Hirugarrena datorren asteburuan erabakiko da, azken finalurreko saioan. Gainerakoak puntuen ariora sailkatuko dira.

Bigarren finalurreko saioa zuen Nafarroako Bertsolari Txapelketak larunbatekoa. Leitzako zinema aretoa bertsozalez bete ageri zen, 250 bat lagun bertaratu ziren Bertsozale ekarteak emandako datuen ariora. Eta horiek «giro beroa sortuz, bertsolarie laguntzeko gogotsu» zeudela igartzen zen aretoan, oholta gainean lanera etorritako sei bertsolarien tizat txalo zaparradak eskainiz, gehienak ere gazteak izaki, be-

Riañok, 3. eginda, finalerako aukerak

Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren finalista Jose Juan Zubieta *Etxabe* da; Elosegik bosgarren lekua lortu du

ren jarraitzaile eta guzti etorriak baitziren. Aparteko animo-oihuak jaso zituten, noski, bertsotan aritu ziren herriko bi semeek, Diego Riañok eta Migel Mari Elosegik: azken agurrekoan kantatu zuten bezala, bata bertsolaritzan bide-lagun dituenak gogora ekarriz, eta besteak, herrian bertan kantatzea «ohorea izan da» bukatuz.

Giro bero horretan, bertso saioa bera ere polita izan zen; lan txukunak entzun ziren bazuen eta besteen ahotan; arrazoi politikak ere botaz; eta baita entzuleen algarak eragin zituztenak ere, itxuraz behinik behin, Zelaietaren bertsotarako ziurtasunari eta lasaitasunari esker.

Zortziko Handian, «babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa-zerrendan dauden bi lagun» izan ziren Zelaieta eta Lakuntza; Zortziko Titkian, «diru arazoak dituzten bi lagun», *Etxabe* eta Elizagoien, edo «Zelaieta agurea, Elosegiren loradendara emaztearentzat lore bat erostera joan da»; Hamarreko Titkian, «gosaritarako 10 minutu besterik ez dituzten bi langile» izan ziren Zelaieta eta *Etxabe*, edo «taberna batean, azkeneko bi bezeroak» izan ziren bi herritarak. Eguneko saioa bukatzeko kartzelako ariketa egin behar izan zuten.

Alaitz Rekondok, «soldata baxua dut/emakumea naizelako» eta «zertan laguntzen duzu/etxeko lanetan» puntuak

jarri zizkien erantzuna botatzeko; eta «ohean etzanda, etorkizuneari pentsatzen zaudela, sabaian armiarma-sarea ikusi duzu» gaia, azkenik, bina bertso botatzeko. Alde desberdinetik landu zuten: Lakuntzak, «ia behingoz gaintzen dugun/ezberdintasunen langa»; Riañok, «bera bezala eskin batean / behintzat ez dut bukatu nahi»; *Etxabe*-k, «etorkizuna da sare hori/bezain korapilatsua»; Zelaietak, «paretarena molda daiteke / eskoba pasa eta kitto»; Elizagoienek, martxoaren 11rekin lotu zuen; eta Elosegik, etxea zaharberritzeko planta egin zuen «hau egiteko dirurik ez dut / baina beldurrik ere ez» esanez. Urduritasunak eraginda edo, pare

SAILKAPENAK ▶

LEITZAKO FINALURREKOA

Bertsolaria	puntuak
1. Jose Juan Zubieta, <i>Etxabe</i>	405
2. Julen Zelaieta	402
3. Diego Riaño	383
4. Bittor Elizagoien	376,5
5. Migel Mari Elosegi	374
6. Oier Lakuntza	354,5

OROKORRA

Bertsolaria	puntuak
1. Estitxu Arozena	413,5
2. Jose Juan Zubieta, <i>Etxabe</i>	405
3. Julen Zelaieta	402
4. Erika Lagoma	398
5. Julio Soto	384
6. Diego Riaño	383
7. Juan Mari Lopez	377
8. Bittor Elizagoien	376,5
9. Migel Mari Elosegi	374
10. Oskar Estanga	370
11. Joseba Beltza	370
12. Oier Lakuntza	354,5

AZKEN FINALURREKOA ▶

Datorren larunbatean, hilaren 18an, 18:30ean, jokatu da, Atarrabiako Kultur Etxean.

BERTSOLARIAK

- ▶ Xabier Silveira.
- ▶ Jon Barberena.
- ▶ Iñigo Ibarra.
- ▶ Iñigo Olaetxea.
- ▶ Iñaki Aleman.
- ▶ Jon Elizetxe.

batek oinak errepikatu zituzten, baina ongi aritu ziren.

Saio guztian zehar zuzen aritu zen *Etxabe*, eta horrek eguneko garaipena eta finalerako txartela eman zizkion. Bigarren Zelaieta. Eta ezusteko polita Riañok jaso zuena: 383 puntu-rekin 3. lekua eskuratu, orokorrerako 6.a da, edo bi finalista kenduta 4.a. Hots, finalean egoteko aukerak izan baditu leitzarrak, hirugarren finalurrekotik zuzenean pasatuko da, eta oraindik beste baten tizat lekua balegoke eta. Hori datorren larunbatean argituko da, Atarrabiako Kultur Etxean.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK Telf.: 943 65 56 95
19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldeko hitza.nfo

hilberria ▶

Andres Mendizabal Eizagirre

Larunbatean hil zen, Orion, 43 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
—Golan bego—



Bere emaztea: Ana Egibar; semeak: Ander eta Igor; gurasoak: Maria Eizagirre (Juanito Mendizabalen alarguna), ezkon gurasoak: Jose Manuel Egibar (†) eta Dionixi Etxeberria (†); anai-arrebak: Arantxa eta Joakin Etxeberria, Ignacio eta Maite Garate, Jose Luis eta M^a Carmen Lazkano; ezkon anai-arrebak: M^a Angéles (), Jesus Mari eta Amaia, Juana Mari eta Angel, Juanito eta Izaskun, Xexé (), Marisa eta Eutimio, Arantxa eta Angel, eta Ilobak.

Haren animaren alde oitutz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte eta Gaur, Aste-Artea, arratsaldeko ZAZPIRETAN, Orioko BARIKO NIKOLAS DEUNAREN parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

ORIO, 2006ko martxoaren 14a

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko martxoaren 14a, asteartea ▶ IV. urtea

DEIALDIAK

Anoeta. Festak antolatzen lehendabiziko bileran. 19:00etan, udaletxean.
Asteasu. Abesbatzakoek kantujira egingo dute hilaren 25ean, 12:00etan hasita. Ondoren, bazkaria egingo dute. Izena emateko 687 27 31 63 telefono zenbakira deitu hilaren 17a baino lehen.
Tolosa. DBHko 3. mailako eta Babxilergoko 1. mailako gurasoen bilera. Bihar, 16:30ean, Orixen. Gaia: afektibo eta sexu heziketa programaren aurkezpena.
Tolosa. Odol-ematea. Bihar, 10:00etatik 12:00etara, Inmakulada ikastetxean.
Tolosa. Alpino Uzturre elkarteak Ermua-Landa mendi irteera antolatu du iganderako, hilaren 19a. Aldaia, Elgeamendi eta Usakoatxa mendiak igoko dituzte, 7 orduko ibilaldian. Izen-ematea, elkartean (Gudari, 5. 943 65 27 89).
Tolosa. Santa Maria kaperak eta Udalak omenaldia egingo diote Pepe Arzelus organistari hilaren 19an. Bazkarirako (Frontonen) txartelak salgai daude Zabala estankoa, Lardiesen eta Santa Maria parrokian.

ERAKUSKETAK

Alegia. Jose Luis Albizuren koadroak. Hilaren 21a arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.
Leitza. Manuel Lasarte: bizitza eta sorkuntza. Hilaren 26ra bitartean bisita daiteke, udaletxeko batzar aretoan.
Tolosa. Dorleta Ortiz de Elgearen pinturak. Apirilaren 1a arte, Aranburu Jauregian.



Xabier Lizaso pianojolea Muñagorri eskolan

BERASTEGI ▶ Berastegiko Muñagorri eskolako ikasleek «musika saio politaz» gozatzeko aukera izan berri dute ikastetxean bertan. Kutzaren laguntzaz, pianojole baten bisita jaso zuten haur eta gazteek pasa den ostiralean. Hain zuzen ere, Xabier Lizasok eskaini zien emanaldia berastegiari. Musikaren bidez zenbait joko egiten aritu zen, gainera, ikasleak entretenituz. Hala, «Musika Klasikoarekin harremana estutzeko» aukera izan zuten Muñagorrikoek. Era berean, «ohikoa ez duten irakaslearekin zuzenean pianoa entzun» ahal izan zuten. HITZA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Unai Ausin Insausti. Gaur 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat ebakekoen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Tolosa. Maite Ibasoren pintura lanak, Lanbroa tabernan.

HITZALDIAK

Ibarra. Alza-Larratxon lanean ari den Javier Hernan apaizak kalean egiten du lan, auzoan dauden gizarte eta kultura mailako arazoekin. Hitzaldia eskainiko du, Ekuadorri buruz, Misio Astean. 20:00etan, parrokiako lokalean.
Tolosa. Hirukide Jesuitinetako Guraso Elkarteak gurasoei zuzendutako saioa antolatu du, seme-alabentzat kirola egiteak dituen onuren gainean. Euskal institutuko gorputz-hezkuntzako aditu Luis Maria Zulaika izango da hizlari. 18:30ean, ikastetxeko hirugarren solairuan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

IRRATIA

Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, HITZAren errepasoa, albisteak, elkarrizketak, disko eskainiak...
 18:00-19:00. *Adi guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek prestatzen duten saioa.
 19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 21:00-22:00. *Zaharrek berri*, Irulegi irratiak eskainitako saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
 22:00-23:00. *Street noise* musika saioa.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

hitza txokoa lagunen

▶ HITZA harpidedunen artean...

HONEKIN Ileapaindegian zerbitzu osoa eta ilearen tratamendurako bi produktu zozketatuko ditugu.

ESTILISTAK honekin

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero